

Herria eta herritasuna

Euskaldunon Egunkaria, 1995-06-06: 2.

Joan diren hauteskundeetan sentitu nuen kezka argitu nahi nuke, ea politikazko alderdietan egituratuta gabiltzan herritarrok ez ari garen herritasuna, herri baten parte izatearen zentzua, galtzen ari. Gure jatorri eta familia izatearen sentimendu batetik, puzzle politiko baten morrontzape luzean erortzen ari ez ote garen, alegia. Ideologiak eta antzeko estrategia globalik bada gizateriaren historian, eta maila askotan diferentziak eta anbizioetako borrokek funtzionatu dute herrien artean, baina gizakiaren oinarrian dauden jatorriaren duintasuna eta berekin bizi dituen memoria eta hizkuntza gordetzen denak ahalegindu dira, zeren eta gizonaren sena norbera izaten irautea da, suizidioa ez da positiboa, eta hau kulturen arteko diferentziak suntsitu gabe. Bestalde irabazteko bidean dagoenaren tentazioa izan da, eta ez justizia, sintesia bere kultura bidetik abiatuta egitea. Baina guk, herri txikia eta ongi zigortua, ezin dugu prozedura hau onartu, gure heriotza delako, eta dakigulako ez dela ezberdintasuna kausa, baizik eta intolerantzia. Norbaitek esango du, zentzu honetan Herria faktore sozial integratzaile bezela itxia dela; bertokoa ez denak ezin duela parte hartu. Eta ez, herri honen parte izateko nahikoa du bere izpiritu barruan lana egitea, asko ari diren bezela; bestela, faxismoa litzateke. Baina, datorrenak ez badu integratu nahi, bera da razismoa ekarri eta ezarri nahi diguna.